

## SINFONIA KLIMATIKOAREN BILA: KLIMARI BURUZKO GOI-BILERA PARISEN

Gaurtik aurrera, erronka handienetako bati aurre egiteko hitzordu erabakigarria edukiko du munduak: klima-aldaketari aurre ematekoa, hain zuzen ere. Ankerkeriaren amildegira hurbildu gaituzten duela gutxiko A 13ko atentatuen ondoren, Paris –argien eta ilustrazioaren hiria- berriz osatu da, ahalegin ikaragarri eta goraipagarritz, datozen egunotan bere baitan hartzeko horrenbeste iguriki den klima-aldaketari buruzko Nazioarteko Hitzarmen Markoari atxikitako XXI. Biltzarra (“COP 21” akronimoarekin ezagutzen dena).

Klima-aldaketa, zalantzarik gabe, berebiziko mehatxua da Lur planetaren biodibertsitaterako. Hala ere, klima-aldaketak gure planetan eragingo dituen desorekak dena delakoak izanda ere, eta horien irismena zehaztasunez neurtzen ez badugu ere, gizakiok jasango ditugu, egiazki, fenomeno horren ondorio lazgarrienak. James Lovelock zientzialariak hipotesi entzutetsu hau formulatu zuen 1969an: lurra sistema auto-erregulatzailerik da, eta bizitza oro har mehatxa dezakeen edozein ingurumen aldaketari egin diezaiolke aurka. Hipotesi horrek zalantza sortu zuen aurreko mendeko komunitate zientifikoan, eta William Golding idazleari zor dio izena, hipotesia Gaia izendatzeko proposatu baitzion horrek egileari. Gaia, Ama Lurraren jainkosa grekoa bezala. Gaia hipotesiak aurrez aurre jarri ditu gizakiak eta horien erronka, berehalakoa eta saihestezina izaki hori: klima-aldaketak eragindako ingurumen ondorioei aurre egiteko premia beharrezana. Guk daukagu zeregin horren gaineko erantzukizuna, izan ere, azken batean, aipatu klima-aldaketak gizakien existentziari berari ekarri dion arriskua dago jokoan.

Klima-aldaketari buruzko Nazio Batuen Hitzarmen Markoko organo gorena da COP 21. 1992an egin zen aipatu hitzarmena, Rio de Janeiroan. Data hartatik aurrera, atmosferan negutegi efektuko gas kontzentrazioa egonkortzeko akordioak lortzeko xedea eduki du nazioarteko komunitateak, klima sisteman atzerazinezko interferentziak egotea saihesteko mailara jaitsi dadin gas kontzentrazio hori. Orduetik, 196 estatu kideetako ordezkariak urtero elkartzeko ardura eduki du aldean hitzarmenak. Klimari buruzko goi-bilerak esaten zaio bilguneari, eta, urtez urte, klima-aldaketaren gaineko sinfonia (edo akordioa, hitz horren jatorri grekoak adierazten duen bezala) sortzea ahalbidetuko duen ahots elkarketa lortzen saiatu da. Jada, 21 batzar egin dira.

Pariseko COP 21, aurreko goi-bilerak bezala, planeta gizakion ekintzaren ondorioz berotzen delako egitate eztaba daezinaren gaineko kezka sakonarekin hasi da, geroz eta handiagoa den kezkarekin. Gaur, gradu bat igo da tenperatura, industria garaian zegoenarekin alderatuta. Klima-aldaketari buruzko adituen gobernu arteko taldearen bosgarren ebaluazio-txosteneko ondorioek ez diote lekurik egin inolako eztabaida zientifikori. Gizakiok klima sisteman dugun eragina argia eta ukalezina da. Industria garaia hasi zenetik, gizakien ekintzak egundoko gas kopuruak isurtzen

dizkiote atmosferari, eta gas horiek dira, hain zuzen ere, negutegi efektua areagotu dutenak.

Aldi berean, oraingo honetan, okerrena gertatzea ekiditeko akordio klimatiko berria lortu ahal izango delako nolabaiteko itxaropen zantzuarekin hasi da COP 21, hau da, planetaren tenperatura orokorra bi gradutik harago igotzea saihesteko akordioa lortzeko itxaropenez. Goi-bileran horrelako aurrerapena lortzeko gakoetako bat dira nazio ekarpen zehatzak deiturikoak (INCD, ingelesez). Horrelaxe izendatu dira gaur arte 170 estatu kidek beraien igorpen maila askotariko ekintzen bidez murriztea lortze aldera aurkeztu dituzten konpromisoak. Honakoak izango dira beste gako batzuk: karbono gutxi duten ekonomia malguetaranzko egokitzapenerako proposamenak partekatzea, kalte klimatikoak konpontzeko eta finantzatzeko mekanismoak ezartzea eta, zalantzarik gabe, goi-bileran hartutako konpromisoen gardentasunerako eta horien berri emateko tresnak praktikan jartzea.

Beharbada, Pariseko goi-bilera izango da gure azken aukera. COP 21ek ekarri behar du munduko pertsona, erakunde, antolamendu, herri eta herritar guztiek argi eta garbi eska dezatela, ozen, honakoa: Gradu bakar bat gehiago ez!

Gure eremu hurbilenean, Euskadin, gure erantzukizun zatia ere badugula onartu behar dugu, planetako gainerako lurraldeek bezala (zehatz-mehatz, Europar Batasuneko igorpenen % 0,5 da gurea). Hortaz, guri ere badagokigu planetaren neurriko ahalegin komunari ekarpena egitea. 2015eko ekainean, Klima-Aldaketaren aurkako Euskadiko Estrategia 2050 onartu zuen Eusko Jaurlaritzak. 2050erako negutegi efektuko gasen gure igorpenak % 80 murrizteko xedea dauka dokumentu horrek, eta % 40 areagotzea energia berriztagarrietatik datorren energia kontsumoa. Erakunde, organismo, elkarte eta pertsona guztiok oso argi eduki behar dugu xede hori egitasmo, programa eta ekintza zehatzen bidez betetzeak duen garrantzia oso handia dela. Zuk eta biok badugu zeresanik, bai eta egitekorik ere. Hasteko, idatz ditzagun data eta hitzordua. COP 21 klimari buruzko goi-bilera. Lurrarekin dugun hitzordua da, Gaiarekin duguna.

Manuel Lezertua  
Arartekoa